

SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA



2009ko otsailak 20  
Miramon Zientziaren Kutxagunea  
Donostia



**EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA  
JARDUNALDIA**

Babesleak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



**kutxa**  
gizarte ekintza



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

Kultura Saila  
Hizkuntza Folkloraren  
Departamentua

Laguntzailea:

[www.soziolinguistika.org/jardunaldia](http://www.soziolinguistika.org/jardunaldia)

# JARDUNALDIKO IDEIA NAGUSIAK

# Euskararen ezagutza eta erabilera. Datuek zer diote?

## Mahai ingurua

- 1.- Euskaraz dakitenen kopuruak gora egin du EHn azken 20 urteotan, baina elebidunen tipologia aldatu egin da.
- 2.- EAEn, erabilerak gora egin du esparru formaletan, baina hurbilekoetan (familia...) ez da igo, eta kasu batzuetan jaitsi.
- 3.- EAEn, orokorrean gehiago erabiltzen da, baina elebidunek, proportzioan, gutxiago: euskaldunen “sare”ak “xare”tzen ari dira.
- 4.- Datozen urteetako hizkuntza politikek eskatzen dute tokian tokira egokitzea eta euskara hautatzeko motiboen atzean zer dagoen sakontzea.

# Haur eta gazteen erabilera eskola giroan

## TAILERRA: ARRUE ikerketa

- 1.- *Jolaslekuan*, ikaslearen erabilerak lotura gehiago du bere hurbileko harreman-sareen erabilerarekin (familia, lagunak...), bere ezaugarri indibidualekin baino.
- 2.- Ikasle baten eskolako erabileran, bere gela edo *taldearen* erabilera-joera gainerako ezaugarri guztiei nagusitzen zaie.
- 3.- 11-12 urteko neskek mutilek baino gehixeago erabiltzen dute euskara. Gelan zein jolaslekuan, 5 bat puntu gehiago.
- 4.- Lan-saioko parte hartzaileen hipotesi bat:  
*Ikastetxea – Aisialdia – Familia: 3 horietatik 2 ez badira euskaraz, ikasleak nekez izango du erraztasuna euskaraz.*

# Nola eragin lantokiko erabileran lidergoaren bidez?

## TAILERRA: ERALAN ikerketa proiektua

- 1.- Lidergo partekatua eraldaketa eragiteko bide gisa hautatu da EraLan-en, 2006-2008ko esperientzian oinarrituta.
- 2.- Lider eredu bezala, lidergo eraldatzailearen ezaugarriak proposatu dituzte adituek.
- 3.- Mapa aldatu, pertsona da zentroa. Arreta besteengan jarri behar dugu. Psikolinguistikaren beharra.
- 4.- Hitzaldiaren helburua estimulua izatea. Edukien flash-ak.  
Informazio gehiago: [www.soziolinguistika.org/eralan](http://www.soziolinguistika.org/eralan)

# Hizkuntzen hazkundera interneten

## Vicent Partal

- 1.- Gaur egun, hizkuntzak ezin dira “bertan” soilik normalizatu, nazioartean eta ziberespazioan leku bat lortu gabe.
- 2.- Hizkuntza bat “global” bihurtzeko asmatu behar da lotzen ekimen nazionala eta erabiltzaile lokalak.
- 3.- Nazioarteko errekonozimenduak katalanaren sare lokala indartzen du (prestigioa, autoestima). Horretarako ikusi egin behar zaituzte, ikusarazi egin behar zara.

# Teknologia berriak eta euskararen erronka

## Iratxe Esnaola eta Gorka Julio

- 1.- Euskaldunak interneten egotetik izatera pasatzea beharrezkoa da.
- 2.- Barrura eta kanpora begira bi pauso eman behar dira: Komunitatea definitzea eta ordezkatzeko duen ikur bat ematea.
- 3.- Sare deszentralizatuak sustatu behar dira: bitartekaririk gabeko harremanak.
- 4.- Komunitateak elkarrekin lotu behar dira. Ziberekintzaileak izan behar gara!



**Eskerrik asko!**